


## Euskaldunen istorioak



René Cassin Charles de Gaullek Londresen 1940an sortu zuen Frantzia Libreko kide izan zen.



1987ko urriaren 5ean Cassinen

René Samuel Cassin baionarrak pertsonen eskubideak munduan finkatzea jarri zuen bere bizitzaren xedetzat. Beretzat, pertsona bakoitza sakratua zen eta bere eskubideak Estatuaren eta mugen gainetik kokatzen zituen

Jean-Louis Davanten erreportajea

## Nobel saridun euskalduna René Cassinen bizitza eta lanak

**R**ENÉ Samuel Cassin Baionan jaio zen 1887ko urriaren bostean, udaletxetik bi urratsetan dagoen Ducéré karrika txikian. Renéren ama, Gabrielle Dreyfus, Baionakoa zen, aita Azaria Cassin Nizakoa. René lau haurretarik hirugarrena. 1891ko irailean, Baiona utzirik, familia Nizan plantatzen da. René lau urteetara doa. Oporrak amaren gurasoekin hartuko ditu Baionan, lagunak eginez. Bi aldeetarik israelitak dira: gizonak erlijio gutikoak, emakumeak fidelago, eta René bere bar mitzva egin du 1900ean.

Batxiler diploma 1904an bildurik, zuzenbidea ikasten du Aix en Provençeko fakultatean. Soldaduska 1906an: ofizial-gaiaren taldeko lehena sailkatzen da, baina puntu hori ez diote libretean sartzen, agian judua delako, amaren aldetik Dreyfus alsaziar leinuko kapitain sonatua bezala: 1914an gerlara joango da soldadu soil.

1908an zuzenbideko lizentzia lortzen du, baita historiakoa ere. Parisen



Eleanor Rooseveltek zuzentzen zuen Batzordeko kidea izan zen.

**Cassinentzat, Estatu ez da absolututzat onartu behar; horren boterea gainetik eta behetiko erakunde batzuekin banatu behar da**

**Beretzat euskaldun edo bretoi nortasunaren garapenak Europaren bateratzea ez du oztzatzen**

biziko da lan xume batzuei esker, zuzenbidean aurrera ikasiz. Doktoregoa 1914an erdietsiko du, eta agregazioa 1919an. Bien artean gerla egin du.

1914ko irailean Marneko guduan parte hartzen du; bere kuraiagatik kaporal izendatzen dute. 1914ko urrian Lorrainan larriki zauritua da. Elbarritua denez, armadatik aske dago. Marseillako Simone Yzombard ikasle lagun ohiarekin ezkontzen da 1917an Parisen. Bikote gaztea Aix hirian plantatzen da.

1918an, UF Frantziako gerlari ohien elkarte nagusia sortzen du, eta bururaino gidatuko du bakearen alde. Gerlarenatik jasaniko kalte pertsonalen ordain eskubidea Estatuari onarraraziko dio. "Nazioko haurzurtzen aita" deituko dute. 1919an, agregazioa erdietsirik, Lilleko unibertsitatea hautatzen du, gerlak gehienik kaltetu duena delako. Hor zuzenbidean irakatsiko du, 1929an Pariseko fakultatera izendatua izan arte.

1921ean, UF elkartearen izenean, Cassinek Genevan frantses eta aleman gerlari ohien bilkura bat antolatzen du. Elkartea SDN delakoaren zerbitzuko jartzen du: Société des Nations hori, 1920an sortua, Genevan kokatua, ONUren arbasoa dugu. Haatik ahulezia bat badu, ez txikia: Amerikako Estatu Batuak ez dira hor sartu.

1924ko irailetik, Frantziak SDNean duen ordezkariaren dago Cassin. Era-kunde etengabe sostengatzen du. Nahi luke "Nazioen erakunde juridikoa" bilaka dadin. Moralki indartzea aholkatzen dio, gero "nazioarteko polizia organiko baten sortzea, ahalaz airekoa", bai eta 2armen kontrolatzeko Batzorde iraunkor baten biltzea, botere handiak horri emanez". Gerlako frantziar adituek baino lehen, Cassinek asmatu du hegazkinek gero gerletan nolako indarra hartuko zuten.

1926an, Frantziaren sostenguz, Alemania SDNean sartu da. Maluruski 1929an New Yorken hasi den krisiak erdiz-erdi joko du, langabeak milioika eginez. Hitler gobernura heltzen da 1933ko urtarrilaren 30ean. Abian

alderdi bakarraren diktadura finkatzen du, lehen kontzentrazio guneak eraikiz oposizioa alemanentzat.

1933ko irailean, SDNeko egoitzan, Cassin antzerki harrigarri baten lekuko gertatzen da. Aleman judu bat Alemaniako gobernu berriaren akusatzaile agertzen da, bere juduei egiten dien pertsekuzio bortitza salatuz. Erantzunez Goebbels, propagandako ministroa, tribunara igotzen da, ondoan dituela hogeita bat mutiko gazte, pistola sakelean: "Ikazkina bere etxean nagusi da. Estatu subirano bat gara; gixolot horrek dioen guziaz ez da zuzen asuntua. Nahi duguna egiten dugu gure sozialista, pazifista eta juduez, eta ez dugu kontrolik behar, ez gizateriaren, ez eta SDN honengatik".

**GERRA BADATOR** Cassin txunditurik dago. Herritarrei bizitza nahi bezala ken dezakeen Estatu ahalguzidun baten ideia ez dezake onar. Berak jenderia barneko legetzat daukan "Estatu terrorista" bat ingurukoekin ez da eztiagiago ariko. Cassinek argi du munduko bigarren gerla datorrela SDN eta demokrazia handiak ez badira azkar mugitzen!

Abisua abisuaren gain ematen du, baina debaldetan. SDN aहुlduz doa, Frantzia eta Britainia Handia beti atzeraka dabilta Hitlerren aurrean, utzikeria batetik bestera labainduz. Muniche Txekoslovakiaren suntsiketaren onartzen dute. Laster Hitler Polonian sartuko da, munduko bigarren gerla piztuz. 1940ko maiatz-ekainetan aleman armadak Frantzia eta Britainia Handikoa xehatzen du Polonian ikasirik blitzkrieg gerla-tximistaz. Iheslarien uhinetan, Cassin Baionara heltzen da ekainaren 18an. Biharamunean de Gaulle jeneralaren deia aipatzen dio lagun batek.

Ekainaren 24 arratsean Donibane Lohizunen azken ontzi britainiarra hartzen du emaztearekin, lehen etsaiak Baionara heltzean. 29an de Gaullek bere urgazle gehien izendatzen du. Londresen egonen da hiru




## Euskaldunen istorioak



### AUTOREA

JEAN-LOUIS DAVANT



René Cassin (1887-1976).

mendeurrenean, bere gorpuzkinak Parisko Panthéonean ehortzi zituzten.

urtez, gero Aljerren urte batez. De Gaulle eta Churchillen arteko hitzarmena idazten du; testu horretan oinarritzen da Frantzia Librearen eta Erresuma Batuen arteko aliantza. Cassinen eskutik dator halaber Irujo-de Gaulle hitzarmena: Frantses Indar Libreen baitan, eusko gudari talde baten eraketa hitzartzen du. Churchillen debekuak tratua deseginen du, Francori mundu gerlan sartzeko aitziarik ez ematearren.

Cassin BBCtik usu mintzo da. Frantses Inperioko defentsa kontseiluko idazkari iraunkorra da, eta gero Frantses Kontseilu Nazionalako hezkuntza eta justizia komisario / ministroa. Frantzia Librean ordezkatzen du nazioarteko bilkura batzuetan, bereziki 1941eko irailaren 24an, Aliatuek Atlantikako Kartaren testua sinatzen dutelarik.

Aljer utzirik 1944ko abuztu hondarrerantz, ikasturte berrian zuzenbide zibilean irakasten hasiko da berriz Parisko fakultatean. Bestalde kargu handirik beteko du, beti justiziako eta kulturako gaitan: Munduko Aliantza Israelitako presidentea 1942tik, UNESCO erakundearen sortzaileetarik da 1945ean Parisen, eta hor Frantziaren ordezkarria 1958raino, ONUko Giza Eskubideen Batzordeko lehendakaria, frantziar Estatu Kontseiluko

presidente-ordea (1944-1960), frantziar Kontseilu Konstituzionalako presidentea, eta Europako Giza Eskubideen Gorteko lehendakaria 1965etik. 1947an Académie des Sciences Morales et Politiques delakoak kideztat hartzen du, eta berantago bere lehendakaria.

1947 urtean, Eleanor Roosevelt anderearen babesean, Giza Eskubideen Aldarri Unibertsala zirriborroan idazten du, eta idazki hori, zuzenketa gutirekin, ONUko biltzar nagusiak onartuko du Parisen, 1948ko abenduan. Cassin Aldarri horren aita dugu.

1959ko urtarrilaren zortzian, Cassin behin-behineko Batzorde Konstituzionalako burua izanez, horren aurrean zin dago de Gaulle Errepublikako presidente berriak. 1960an zuzenbide zibileko irakaskuntzatik erretiratzeko lan horretan ari izan da 1919tik (Lillen 1929ra arte, gero Parisen).

1966 hondarrera, Pariseko egoitza Piarres Charrittonen bisita bat hartzen du: Piarresek hegoaldeko euskaldun iheslari batzuen laguntzera deitu nahi zuen, Frantziako gobernuak kanporatzen baitzituen. Hona elkarrikeria horren istorioa, 2009an frantsesez igorri zidan gutunetik itzulia: "Frantziako euskaldun apez bezala agertu naizenetik, atera jin zait harrera egitera, ene harridurako kan-

Iratçabal, Zuberoa Pettarreko Ürrüstoi-Larrabilen sortua 1935ko 7ko 5ean, nekazari familia batean; udalerrri horretan bizi (frantsesez Arrast-Larrebieu). Laborantzako ingeniaria. Aljerian soldadu 27 hilabetez hango iraultza denboran. Agronomiako irakasle 35 urtez Hazparneko Laborantza ikastetxean, horko zuzendaria denbora batez, orain erretiroan. Zuberoako aulkian euskaltzain osoa 1975tik, emeritu izendatua 2010ean. 1961ean ezkondua, bi alaba, hiru biloba.

tu hau abestuz: "Boga, boga, Marinela!... Bai Indietara!..." eta hasiera hori argituz erran dit: "Aitzina! Aitzina!... Azalduko dizut..." eta kontatu dit nola Baionan, haren sortetxean, Baionako etxe on guzietan bezala, neskameak eta inude / hazama guziak euskaldu-

nak zituzten, eta holaz berak entzun eta ikasi zituen lehenbiziko kantua euskara hutsezkoak zirela. (...)"

1968ko abenduan, Oslon, Cassinek Bakearen Nobel Saria ukaiten du. 1969ko ekainean hil zaio Simone emaztea, bere urrats guzietan artoski bezain sotilki lauzkatu zuena. Bera Parisko ospitalean itzaliko da 1976ko otsailaren hogeian. 1987ko urriaren bostean, sortzeko mendeurrenean, haren hautsak Panthéonean sartzen dituzte, Mitterrand Errepublikako presidentea delarik, eta Chirac gobernuburu. Legelaria, legegizona, Montesquieuk finkaturiko hiru botereen banaketa gain-gainetik zainduz, politikatik bazter egon da beti, eta gizadi osoaren abokatutzan ari izan.

**PERTSONEN ESKUBIDEAK** Bere bizitza xede bakar baten zerbitzuko jarri du, pertsonaren eskubideak mundu mailan finkatuz, legeztatuz eta nazioartean zainduz. Pertsona bakoitza sakratua zaio. Horren eskubideak Estatuaren eta mugen gainetik jarri behar dira. Horretarako Estatuak ez dugu absolututzat onartu behar. Horren indarra mugatu behar da, boterea gainetiko eta behetik erakunde batzuekin banatuz. Gainetik Estatuak bere nagusigoaren zati batzuk nazioarteko justizia bati utzi behar dizkio; pertsona

bakoitzak horren legeei eta auzitegiei dei egin dezake, jendearen funtsezko zuzenak zangopilatzen direnean. Justizia horren zerbitzuko legoke nazioarteko polizia bat, ongi armatua.

Behetik, Cassinek "probintziak" indartzen ikusi nahi lituzke, honako izkirio honek erakusten duenez: "Cassinentzat, euskaldun edo bretoi nortasunaren garapenak Europaren bateratzea ez du oztopatzen. Aitzitik biak bat datoz. (...) Europa egiazki egin dadin, dio Cassinek, Estatuaren indar soberakina hautsi behar da eta probintzien indarra gotortu (...)"

Heren munduarentzat, deskolonizatzea aldarrikatzen du 1945eko udan. Orokorki populuen autodeterminazio eskubidearen alde dago, baina bemol garrantzitsu batekin: "Estatu mikroskopikoen ugaritzea ez du gustukoa, haien ezin bizia eta inperialismoen janizagatik". Aterabide federalistak nahiago ditu. Gandhi bezala, bortizkeriaren etsaia da, haatik ez osoki. Pazifismo hutsa arbuatzen du, populu borrokalarien jokoa egiten duelako. Gandhiren satia graha nekez onargarria zaio mundu mailan, gizona eta gizadia diren bezala ezagutuz. Munstroei bidea zabalik utz lezake. "1936an, Hitlerren aurka aski goizik mugitu gabe, gerlaren piztera bulkatu dugu". ●



ERAKUSKETA  
Azaroaren 24tik abenduaren 16ra arte

**Kondestablearen Jauregia.** Kale Nagusia, 2. Iruña  
Astelehenetik igandera: 9:00-22:00

RED 1936-47  
ALAVA  
SARBIA  
EMAKUME  
IKUSEZINAK  
MUJERES  
INVISIBLES  
ELKARTASUNA  
ETA ESPIOITZA  
SOLIDARIDAD  
Y ESPIONAJE



EXPOSICIÓN  
Del 24 de noviembre al 16 de diciembre

**Palacio del Condestable.** Calle Mayor, 2. Pamplona  
De lunes a domingo: 9:00-22:00